

Nola **jokatu** behar da aditza honako esaldi hauetan: singularrez ala pluralez?

- Zenbait jendek uste...

...du...

...dute...



- Zenbaitek hala...

...dio.

...diote.



- Iaztik hona zenbait aldakuntza nabari...

...da.

...dira.



- Zenbait harrabots entzun...

...dut

...ditut



- Zenbait hizlariri solasa moztu behar izaten...

...zaio

...zaie



Argazkia: Susanne Jutzeler

- Singularrez nahiz pluralez egiten du aditzarekiko komunztadura ZENBAIT zenbatzaile zehaztugabea daraman sintagmak:
 - **Zenbait jendek uste du/dute...**
 - **Zenbaitek hala dio/diote.**
 - **Iaztik hona zenbait aldakuntza nabari da/dira.**
 - **Zenbait harrabots entzun dut/ditut.**
 - **Zenbait hizlariri solasa moztu behar zaio/zaie.**

- Kopuru zehaztugabea izanik, numeroari dagokionez zentzu singularra edo plurala duen, halaxe jokatu ohi da aditza, oro har, literatura-tradizioan¹:
 - Perikles famatu hark **mantentzen zuen** betiere bere herritik kanpoan **zenbait gerla**. Eta urte oro igortzen zituen ontziak, jendez beterik, gerla hartara.
"Axular", *Gero*, 1643
 - Emaztetto batek kofesioan aitortu zion **zenbait porru ebatsi zituela**.
Jean Baptiste Constantin, *Haritxabalet*, 1926


¹ Ez beti. Ikus hurrengo diapositiba.



- Erabileran, hala ere, badira aldeak autore batetik bestera. Honako adibide hauetan, esanahia plurala izanik, singularrean jokaturik dago aditza:

 - Ene izpirituan / **bazen** zenbait bertsu, / oraino den guzia / etzeraut hustu.*

Juan Etxamendi "Bordel"


 - Ume anitz egin duen ahardiari azkarkiago ematen zaio jatera, ez **bazaio** zenbait ume kentzen.*

Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 1858

● Gaur egungo idazle eta itzultzaileen artean ohikoa da bi erabilerak aurkitzea:

- Gizakien eta animalien **zenbait azterketak adierazten du** eginkizun garrantzitsua duela **kortex prefrontalak inbibizio-prozesuan.**

Nesse, W., *Mineralogiaren hastapenak*, EHU, 2013. Itzul.: Ixiar Iza

- **Bakardadea XXI. mendeko izurritzat jo dute zenbait autorek.**

Berría, Ainara Argoitia, 2004-05-19

- Bertzenaz ere, emaztegaiaren familian **zenbait frankista bazen...**

Eneko Bidegain, *Anbroxio*, 2002

- Irudian, **zenbait anfibol arrunt ageri dira.**

Nesse, W. *Mineralogiaren hastapenak*, EHU, 2013. Itzul.: Ixiar Iza



Zenbait anfibol: riebekita, magnesoriebekita...

- Ekaitzak **zenbait deskalabru egin du** inguruan.

Jose Angel Irigaray, *Denboraren mugan*, 2005

- Hendaiako itsasbazterrean ere **zenbait plano filmatu ditu** zuzendariak.


Nora Alberbide, "Bergmanen haurtzaroaz", *Berria*, 2006

Guztiarekin ere, plurala da batzuetan *zenbait* zenbatzaile zehaztugabearen erreferentzia. Beraz, nahitaezkoa da halakoetan pluralaz jokatzea aditza. Adibidez:

- **Berrikiago, Mikulincer-ek eta beste zenbaitek erantzun-latentziaren paradigma **erabili dute** oroitzapen emozionalen eskuragarritasun kognitiboan agertzen diren atxikimendu-estiloaren desberdintasunak aztertzeko.**

Hewstone, M. eta Brewer, B. (2012). Gizarte-kognizioa. EHU

Euskaratzailea: Elhuyar Fundazioa, I. Leache, I. Bereau eta I. Santamaria.





Beste jakingarri batzuk:

- Mugagabeen erabili behar dira 'zenbait'-i dagozkion izenak.
 - zenbait **LEKUTAN**
 - zenbait **ASTEREN** buruan
- 'Zenbait', batez ere, izenaren ezkerrean doa; eskuinaldean ere jar daiteke halere: estilo-kontu hutsa baino ez da.
 - **Erran-merran zenbait** bada han eta hemen afera horretaz. [Xipri Alberbide, *Janpierre Arbelbide*, 2005]
- 'Zenbait' eta 'hainbat' ez dira sinonimo:
 - zenbait = batzuk
 - hainbat = hainbeste (asko)

Gehiago jakiteko:

Euskara Institutua, EHU, "Zenbait", *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*,
www.ehu.eus/seg

Gramatika batzordea (1991). *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I*.
Bilbo: Euskaltzaindia (140.-152. or.)

Petirena, Patxi (2011). "Zenbatzaile zehaztugabeak", in
Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak, EIMA, 143. or.

Villasante, Luis (1978). *Estudios de sintaxis vasca*. Editorial
Franciscana Aránzazu, 28. eta 212. or.